

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 1211

*228/2021 EBAZPENA, otsailaren 15ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez Jesús María Larrañaga Garitano jauna hautatzen baita Bilbo-Basurtuko Erakunde Sanitario Integratuaren Zuzendari Gerente lanpostua betetzeko.*

Aztertua izan da Bilbo-Basurtuko Erakunde Sanitario Integratuaren Zuzendari Gerente lanpostua betetzeko deialdia. Deialdi hori Zuzendaritza Nagusiaren urtarrilaren 20ko 78/2021 Ebazpenaren bidez argitaratu zen, 2021eko urtarrilaren 25eko EHAA (17. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da eta lanpostu horretan jarduteko hautagaiek aurkeztu dituzten agiriak aztertu dira. Haren baldintza profesionalak jasotako merezimenduen arabera baloratu dira.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Jesús María Larrañaga Garitano jauna deialdiko lanposturako proposa dela eta bertan jarduteko trebakuntza egokia duela ikusi da.

Hori guztia dela-eta, Zuzendaritza Nagusiak honako hau

#### EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Jesús María Larrañaga Garitano jauna Bilbo-Basurtuko Erakunde Sanitario Integratuaren zuzendari gerente izendatzea.

Bigarrena.– Izendapen horrek 2021eko otsailaren 17tik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko otsailaren 15a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.